



MERKATARITZA MAHAIA

2022ko urriaren 24a

GAI-ZERRENDA:

- ✓ Ongietorria
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa.
- ✓ Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa
- ✓ Informazioa hurrengo gaiei buruz:
 - Gabonetako kanpaina 2022
 - Getxo Bono 2023 udal proposamena
 - Izakinen Amaierako merkatua 2023
 - 2022ko kontrataziorako laguntzak
- ✓ Mahai sektorialeko ordezkaria
- ✓ Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.
- ✓ Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

BERTARATUAK: (% 91)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Jokin Aresti (IÑAKI BITXITEGIA)		X	
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Postu hutsa			
Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko ordezkaria	Kimetz Garate (ZURIKALDAI NEGURI)	X		
Romoko ordezkaria	Leire Martin (Expert Cordevi)	X		
Areetako ordezkaria	Sara Mata	X		



	(COLORES)			
Areetako ordezkaria	Itxaso Zelaia (JUAN MARI HARATEGIA)	X		
Algortako Dendak	Oriente Enríquez	X		
Getxo Enpresa	Manu Garay	X		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Aitor Zorrilla	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogezcoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, bilerara gerturatutakoei ongietorria egin die. Jarraian, talde-eztabaida txiki bati ekin zaio udako denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa

Tejidos Lindau dendako Oriente Enríquezek, Algortako Dendak elkarteko ordezkariak, honako hau adierazi du: “Astelehenetik ostegunera hobeto egiten dugu lan. Asteburuetan ez da jenderik ikusten kalean”. Areeta eta Romo inguruetakoa gainerako ordezkariak ados daude iruzkin horrekin. “Larunbat goizetan, jendeak erosketak egiteko aprobetxatzen zuen. Ixten baduzu, errentagarriagoa egiten zaizu”, adierazi du atsekabetuta Leire Martinek, Expert Cordevikoak eta Romoko ordezkariak. “Lantxandak aldatu egin behar izan ditugu”, adierazi du Itxaso Zelaiak, Juan Mari harategikoak eta Areetako ordezkariak. Hala ere, Kimetz Garate Zurikaldakoak, P.zaharra-Neguri-kirol portuko ordezkaria, bere negozio mota dela-eta, alderantzizko egoeran dago: “Nire kasuan, asteburuetan topera aritzen gara; baina aste barruan arratsaldeetan ixtea erabaki dugu, jenderik ez dagoelako”.

Kimetz Garatek berak Portugaleten beste lokal bat du, eta arratsaldeetan bai irekitzen du: “Portugaletek kontzertuak, ekitaldiak... egiten ditu beti. Gainera, Neguriko jendea askotan kexatu zait herrian autobusik ez dagoelako leku batetik bestera joateko; izan ere, ez dago ibilgailu partikularrak aparkatzeko lekurik”. Sonia Urdiainek, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, adierazi du Getxon hiri-autobusari buruzko azterlan bat egiteko konpromisoa dagoela, baina oraindik esleitu gabe dagoela.

Sara Mataren (Colores-ekoa eta Areetako ordezkaria) harridurarako, duela gutxi turista asko ikusi ditu udalerrian, eta nabarmendu du gurutze-ontzian datozenek udalerrian kontsumitzeko ekintzaren bat abian jarri behar dela. Sonia Urdiainek, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, erantzun du gurutzaldi atipikoa dela, Getxotik ateratzen baita. “Hartu ditugun 70 gurutze-ontzietatik, aurtan Getxotik irten den bakarra da”,



aipatu du Sonia Urdiainek. Horrek esan nahi du pertsonak, konexioak (gurutze-ontziaren irteera eta hegazkinaren etorrera) direla eta, 3 edo 5 orduko geldialdiak dituzten beste batzuetan baino lehenago eta denbora gehiagorekin iristen direla udalerrira. Sonia Urdiainek berak mota horretako gurutze-ontziak geureganatzen saiatzeko arloak egiten duen lana azpimarratu du, “baina ez gaude bakarrik, eta beste udalerrri eta portu batzuek ere horrelako gurutze-ontziak dituzte helburu”.

3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta merkataritzako ordezkariak egindako iradokizunen ondoren, dagoeneko ezarrita dagoen metodologia berria azaldu du Mirene Zabalgogeoazkoak, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa. Dokumentuak ez du inolako zalantzarik sortu bertaratuen artean, eta hurrengo puntuari ekin zaio.

4. Honako hauekin lotutako informazioa:

a) Gabonetako kanpaina 2022

Mirene Zabalgogeoazkoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, hauxe esan du proposamenen hauen inguruan:

- Musika kalean: ez da onartu, egungo araudiarekin ezin delako gauzatu. Kaleko eta establezimendu guztietako soinua bateratu egin beharko litzateke. Denbora eta epeen arabera bideraezina da. Gainera, ez dago aurrekonturik. Horrelako zerbait askoz ere lehenago planifikatu beharko litzateke; ezin da orain hasi eta datorren urterako ere.
- “Txu-txu” trena: ez da onartu, oso kostu handiak dituelako. Eta ekonomia sustapeneko arlotik ez dugu uste zuzeneko salmenta gehiago izaten laguntzen duenik. Trena ezin da lotu salmenta kopuruaren igoerarekin.

Mirene Zabalgogeoazkoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, adierazi du ekonomia sustapeneko arlotik gobernu taldeari jakinarazi zaiola, aurreko urteetan ezarritako txandakako zerrendari jarraituz, argiak piztea Romo inguruan izango litzatekeela. Hala ere, gobernu taldeak behin betiko tokia eta data berresteko zain gaude.

Bestalde, Gabonetako kanpainaurrea diseinatu da komunikazioarekin hasi aurretik: “Laguntzaile profesionalen talde bat kalera aterako da udalerriko pertsonekin elkarreraginean aritzera, establezimenduen bilatzailea ezagutarazteko eta hari balioa emateko; parte-hartzea sustatzeko, pendrive bat oparituko dute”, azaldu du Mirene Zabalgogeoazkoak.

Kanpainari dagokionez, elkarteek egingo dituzten Gabonetako ekintzak osatu egingo dira ekonomia sustapeneko arlotik. Adibidez, Romo Bizirik elkarteak astebururako ekitaldi bat antolatu badu Romo inguruan, ekonomia sustapeneko arloa aste barruan zonaldea dinamizatzen saiatuko da. Horretarako, besteak beste, zuzeneko musika erabiliko da: duoak, abesbatzak, trikitixa...

Gainera, Mirene Zabalgogeoazkoak adierazi du Gabon-kanta propioa egiteko proposamen bat dagoela: “ISKak (Industria Sortzaile eta Kulturalak) eta udalerrian



musikari asko daudela aprobetxatuz, Gabon-kanta propio bat egitea proposatu digute — abestia spotarekin, zuzeneko musikarekin... iruteko balioko diguna—, kanpaina bateratzeko helburuarekin”.

Hedabideen kanpainak Getxoko herritarrak atxikitzea izango du helburu; eta, horretarako, espazio publikoak (udal-eraikinak: musika-eskolak...) erabiliko dira bizitegi-eremuetan, markesinez eta metroko argizatutako publizitate-helburuez eta abarrez gain. Leire Martinek honako zonalde hauetan ere egiteko proposatu du: Aldapas, Santana... (dendarik ez baina pertsonak badauden lekuetan, bizitegi-eremuak direlako). Hala ere, udalerritik haratago ere egingo da, udalerrri mugakideetako bezeroak erakartzen saiatzeko.

Bezeroei esker ona adierazteko, iaz izan zuen harrera ona dela eta, berriro poltsa kopuru mugatu bat egitea erabaki da, establezimenduek bezeroei eman diezazkieten. Hala ere, Itxaso Zelaiak, Juan Mari harategikoak, adierazi du ez dagoela ados poltsak banatzearekin, elikagaien sektorean egunero saldu behar dituelako poltsa berriak erosketa bakoitzean. 2023ko Gabonetako kanpainarako artikulua aldatzea iradokitzen du. “Bonboiak eskain litezke; edo “made” in Getxo diren beste objektu batzuk”, aipatu du Leire Martinek alternatiba gisa.

Gutun bat bidaliko zaie establezimenduei, 2022ko Gabonetako kanpainako jardueren agendaren berri emateko kanpaina hasi aurretik.

b) Getxo Bono 2023

Mirene Zabalgoeazkoak jakinarazi du laster ekonomia sustapeneko arlotik inkesta bat bidaliko zaiela Getxo Bono 2022 kanpainari atxikitako establezimendu guztiei, Getxo Bono 2022ren hainbat alderdi balora ditzaten. Gainera, azpimarratu du garrantzitsua dela ahalik eta establezimendu gehienek erantzutea kanpainaren irudi osoa izateko, eta 2023ko kanpainari begira edozein ekarpen edo iradokizun egitea.

Udal proposamenen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Pertsona bakoitzeko bonu kopurua murriztea
- Tiket bakoitzeko bonu kopurua murriztea
- Gehieneko muga bat jartzea establezimendu bakoitzeko bonuen trukeari
- Parte hartzen duten sektoreen kopurua murriztea

Oro har, sektoreko ordezkariak ados daude ekonomia sustapeneko arloak proposatutako neurriekin. Hala ere, azpimarratu dute beren ustez gomendagarria dela jendeak oro har ez dezala jakin Getxo Bono egongo dela, salmentak geldiarazi egiten direlako.

Hala ere, merkataritza-sektore osoa bat dator Getxo Bonoren funtzio hau betetzen dela esatean: haran-garaietan salmenta sustatzea. Izan ere, nahiz eta astebete eskas iraun duten, salmenten kopuruak gora egin duela uste dute.



c) Izakinen Amaierako merkatua 2023.

Mirene Zabalgogezcoak Izakinen Amaierako merkatuak azken urteetan izan duen bilakaera azaldu du:

Mercado de saldos , Histórico participación Izakinen Amaierako Merkatua, Parte-hartze historikoa				
	2019	2020	2021	2022
Marzo Martxo	70	89	64	52
Septiembre Iraila	70	0	47	45

Romo inguruko establezimendu batzuek kezka adierazi zuten ezin zutelako parte hartu bertako espaloiak oso estuak zirelako eta Izakinen Amaierako merkatuan parte hartzeko araudia betetzen ez zutelako. Kezka horren aurrean, Mirene Zabalgogezcoak adierazi du bide publikoko eta azpiegituretako eremuek oniritzia eman diotela ukitutako lokalen aurreko aparkalekuak astoak eta mahaiak kokatzeko erabili ahal izateari.

Izakinen Amaierako merkatuko partaidetzaren beheranzko bilakaera ikusita, Mirene Zabalgogezcoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, zalantzan jarri du programak epe luzera jarraitzea.

d) Kontratatorako laguntzak

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster hemen argitaratuko diren kontratatorako laguntzak eskatzeko: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Dirulaguntzak - Hurrengo dirulaguntzak kontratatorako 2022](#). Deialdia azaroan argitaratzea aurreikusten da.

e) Mahai sektorialeko ordezkaria

Mirene Zabalgogezcoak jakinarazi du Maire Sesumagak ezingo duela Romo inguruko ordezkari gisa jarduten jarraitu, eta haren ordez Leire Martin aurkeztu du.

Bestalde, gogorarazi du Algorta-Andra Mariko ordezkari hutsik dagoela oraindik, eta ordezkari dei egin zaie postu hori betetzeko hautagai berri bat proposa dezaten.



5. Ideia eta proposamen berriak.

Manu Garayk, Galea aurrez prestatuetakoak eta Getxo Enpresako ordezkariak, “bendejen” inguruan kontsultatu du. Mirene Zabalgogezcoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, ordenantza aldatzen ari dela jakinarazi du; eta gaur egun jendaurrean erakusgai dagoela, pertsona guztiek proposamenak egin ahal izan ditzaten. Ordenantza zerbitzu orokorren esku dago, baina ekonomia sustapeneko arlotik ikuspegi orokorragoa emango da araudi berria aplikatzeko baldintzak zehazteko, betiere sektorearen ekarpenak kontuan hartuta.

Sektoreko ordezkariak, oro har, bat datoz esatean merkatuak, bendejak... oso erakargarriak direla jendearentzat eta udalerrian kontsumoa sor dezaketela.

MERKATARITZA MAHAIAREN ERABAKIAK (2022/10/24):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Hiri-autobusaren azterlanari buruzko informazioa	Zerbitzuko teknikariak	Informazio gehiago dagoenean
3. Gabonetako gutuna bidaltzea kanpainari buruzko informazioa emanaz	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Getxo Enpresari kontsultatzea Gabonetako kanpainako ekintzen inguruan	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Euskadiko kontsumo-joerei buruzko txostena bidaltzea: Enfokamer behatokia	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
6. Merkatarien elkarteak: elkartekideen artean azpimarratzea Getxo Bono 2022 inkestari erantzun diezaizoten	Sektoreko enpresak	Bileratik aurrera
7. Hautagaia eskaintzea Algorta-Andra Mariko ordezkariaren postu hutserako	Sektoreko enpresak	Bileratik aurrera
8. Getxo Bono 2022ren azken baloraziorako inkesta bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera